

Rs8. Derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ostekoa amaitzea

Gutxienez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ostekoa (CINE 3 y 4) a amaitzea lortu duen 20 eta 24 adin tarteko biztanleriaren proportzioa (*).

Oso garrantzitsua da biztanle helduen gehiengozko portzentajeak bigarren goi hezkuntzako titulazioa ateratzea, biztanleriak, oro har, eta lan eskuak, bereziki, duten hezkuntza maila areagotzeko. Hezkuntza maila honek ematen dituen prestakuntza eta gaitasuna, goi ikasketetara sartzeko propedeutikoa izateaz gain, berez hezkuntza maila terminaltzat ere jo daiteke, lan mundura sartzeko aukera eskaintzen duelako (prestakuntza zikloak).

Bigarren hezkuntzako ikasketak amaitzen dituztenen tasa etengabe gehituz joan da EBko estatu kiderik gehienetan. Europako Batasunean, 25,64 adin tarteko biztanleen artean, batez bestekoa 90. hamarkadako %50etik 2000ko %66ra igo da.


Datu bera 20 eta 24 adin tarteko biztanleei aplikatzen badizugu, biztanle horien lan igurikapenetatik gertuago dagoen errealtitatean eta ikasten segitzeko aukera handiagoak dituztelakoan kokatzen gara.

EBko kide diren estatuetan 2003rako batez bestekoa %74koa da, sartu berrientzat %88,3ra heltzen den bitartean.

EAEn 1992-2003 tartean adierazle horrek gorako bilakaera izan du, inflexio une txikiiekin izan arren. 1992an adin tarte horretan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ostekoan titulazioa duten biztanleen portzentajea %69,3koa zen, 2003ko %78,6aren aldean.

Adierazle horretan gizonezko eta emakumezkoen artean alde nabarmenak ikusten dira, diferentzia horrek azkeneko 12 urteotan iraun duelarik. Hartara, esaterako, 2003an, EAEko gizonezkoen batez bestekoa %75,1ekoa zen, eta emakumeena %82,3koa.

(*) CINE sailkapen desberdinak erabili dira (1997ko sailkapenaen aurretik), baina bateragarritasuna bermatuz beti




Rs8.1 taula

Derrigorrezko bigarrenaren osteko hezkuntzan graduatutakoen portzentajea EAE. 1992-2003 urteak.


Urteak	Goi mailako bigarren hezkuntzako titulazioa. (CINE 3,4) lortu duten 20-24 adin tarteko gazteen portzentajea		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira
1992	66,0	72,6	69,3
1993	62,2	75,4	68,8
1994	70,9	78,9	74,9
1995	71,7	80,2	76,0
1996	76,0	82,0	79,0
1997	74,9	80,4	77,6
1998	73,3	83,8	78,4
1999	78,2	88,3	83,2
2000	75,1	87,9	81,4
2001	76,7	85,3	80,9
2002	78,3	82,1	80,2
2003	75,1	82,3	78,6

Rs8.1 grafikoa

Derrigorrezko bigarrenaren osteko hezkuntzan graduatutakoen portzentajea EAE. 1992-2003 urteak.



Iturria: Eurostat



Rs8.2 taula

Derrigorrezko bigarrenaren
 osteko graduatuen portzentajea.
 EB. 2003 urtea.

20-24 adin tartekoaren artean goi
 mailako bigarren hezkuntza maila
 (CINE 3,4) lortu duten gazteen
 portzentajea EB


2003 urtea	
Portugal	47,2
España	63,4
Luxemburgo	69,8
Italia	69,9
Alemania	73,3
Holanda	73,3
UE (15 herrialde)	74
Danimarka	74,4
E. Batua	78,2
EAE	78,6
Frantzia	81,1
Belgika	81,3
Grecia	81,7
Austria	85
Finlandia	85,2
Suedia	85,6
Irlanda	85,7

Rs8.2 grafikoa

Derrigorrezko bigarrenaren
 osteko graduatuen portzentajea.
 EB. 2003 urtea.

20-24 adin tartekoetan Goi mailako bigarren hezkuntza mailadunen portzentajea.

EB Helb. : %85



Iturria: Eurostat